

**CARLOS TOTORIKA JAUNA**  
**ALKATEA**  
**ERMUKO UDALA**

**2016KO ERMUKO Udaleko aurrekontuei**  
**Osoko Zuzenketa**

2016rako Ermuko udal gobernuak aurkeztutako aurrekontuen aurreproiektua aztertu ondoren Ermuko EHBilduko udal taldeak aurrekontu hauek osotasunera egindako zuzenketa aurkezten du.

Osoko zuzenketaren zergatiak:

Nagusiki ikusi da ez dela aurrekontu parte hartzailea, udal gobernuak ez duelako parte hartze eraginkorrerako plan zehatz bat, eta aurrekontuak horren isla dira.

Udal gobernuak ez dauka plan estrategiko bat garatua eta hori argi ikusten da aurrekontuetan.

Krisia pairatzen duten familien beharrak asetzeko behar den diru partida nahikoa ez da bideratzen, beste behin ere.

Udal gobernuak ez du euskararen sustapena lehentasun. Ez du dirurik ez plangintzarik hizkuntza politika garatzeko.

Gazteen partehartzea, ahalduntzea eta protagonismoa ez bultzatzeagatik.

Hauek dira Ermuko EHBILDU Udal taldeak 2016ko Udal Aurrekontuari osoko zuzenketa aurkezteko arrazoiak.

Hori dela eta, aurrekontu hauek atzera bota eta berri batzuk aurkeztea eskatzen dugu.